ASTEKARIA | 2016ko apirilaren 15ean | XIX. urtea | USURBIL | 653. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua

**Errraustegiaren aurkako giza-katea antolatu dute**

**Paleta Goma Txapelketan izena emateko garaia da**

**Eskubaloiko jubenil neskak, Euskadiko txapeldun**




# Xabier Aranburuk mende laurden darama espetxean


osu
serigrafia
serigiosu@serigrafiaiosu.com
·kamiseta inprimategia
·pegatinak
·iragarki nahiz industri serigrafia
·laneko arropak
·enpresa opariak
·boligrafoak
·txiskeroak
·laser markaketak...
www.serigrafiaiosu.com
Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL


Bidaiak Taldean
2016
Irteera Lasarte-Oriatik
Errusia
Kruzeroa Greziako irletara
Islandia
Gabonetako azokak
*Irteera guztiak talde osaketari lotuak
Bidaiak Taldean
2017
Irteera Lasarte-Oriatik
Argentina
Kruzeroa Baltikoko Hiriburuetara
Mendebaldeko Kosta (USA)
Polonia
New York
Gabonetako azokak
*Irteera guztiak talde osaketari lotuak
NOAOA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA
Hipodromo Etorbidea 10 - Lasarte Oria
T 934 373 613 | info@noaoabidaiak.com


HAUR ESKOLA
0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO
2014, 2015 eta 2016. urteetan jaiotako haurrei zuzendua
• MATRIKULA EPEA: apirilaren 18tik maitzaren 4ra. Kalezarren
• HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA: 7.30 -16.30*
• EGUTEGIA: astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
• MATRIKULAZIORAKO HITZORDUA:
943 37 40 61 telefonoan 9.30etatik 12.30etara
• ATE IREKIEN EGUNA: apirilak 26, 17:00 euskaraz eta 18:00 gazteleraz
·EPEZ KANPO IZENA EMAN NAHI DUTEN FAMILIEI,
EZINGO ZAIE PLAZA ETA ORDUTEGIA BERMATU
Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela
aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke.
943 374 061

## Albistea iruditan

# Euskal Herriko Itzulia ziztu bizian igaro zen

Etorri baino azkarrago igaro zen Euskal Herriko 56. Itzulia Usurbil eta Aginaga paretik, apirilaren 7an. Denbora gehiago eman genuen txirrindulariak noiz etorriko zain, Itzulia beraz gozatzen baino. Euri tanta artean hasi zen kirolarien desfilea. Herritar bat baino gehiago, etxekoaren bila; ikusmen zorrotzena zuenak topatu zuen Haimar Zubeldia, txirrindularien festan. “Pelotoian” zihoan. N-634 errepide bazterretara gerturatu ziren zaletuek ederki txalotu zuten txirrindularien etorrera. Atxegalde parean ginen eta gaztetxoen animu oihuak gertu entzuten genituen. Udarregi Ikastolako ikasle talde bat ere, ikasgelatik atera eta Itzulia ikustera jaitsi zen. Eta esandakoa, ziztu bizian pasa ziren denak Oriorantz.



**Apirilaren 7an Usurbildik igaro zen Euskal Herriko Itzulia. N-634 errepide bazterretara gerturatu ziren zaletuek ederki txalotu zuten txirrindularien etorrera.**

## Laburrean

### Abian prozesuko azken batzarra

Ezker Abertzaleak Abian barne hausnarketa prozesuaren baitan deituriko hiru batzarretan azkena, larunbat honetan goizeko 9:30ean Potxoenean. “Txosten erabakitzailearen aurkezpena, eztabaida eta bozketa” egingo da.

### Erroizpe elkartekoen batzarra

Txokoaldeko Erroizpe elkarteko bazkideen batzar nagusira daude deituak, igande honetarako, apirilaren 17an. Goizeko 10:00etarako egina dute lehen hitzordua; bigarrena ordu erdi beranduagorako, 10:30ean.

### Maiatzaren 22an ospatuko da Sagardo Eguna

Bidean dator usurbildar askok estimatuen duten urteko jai egun handia; 35. Sagardo Eguna. Antolatzaileak, Sagardo Egunaren Lagunak taldekoak, hasiak dituzte prestaketa lan guztiak. Astebete lehenago, San Ixidro ospatuko da.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege–Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI

Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak

Euskal Herrira!

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



Aritz Gorriti

# Aulkiak, hutsik

Aulkiak borobilean jarri eta buelta aurrera, buelta atzera musikaren erritmora. Gutxien espero zenean musika eten eta larri asko, azkar askoa izan behar aulki bat aurkitu, eseri eta okupatzeko. Bestela kalera. Urtero, hainbat jai edo ospakizunetan ohikoa dugu, hainbeste barre edota batzuetan lehia bizia eragiten duen aulki jokoa.

Besterik ez zaie falta Madril aldean. Baina ez litzateke ideia txarra. Azkenean aulkiak borobilean jarri badituzte ere, aulki jokoan bezala, aulki bakoitza norabide ezberdinera begira kokatua dute. Aulkiotan esertzen direnek, bakoitza norabide ezberdinera aritzen da hizketan, elkarri bizkar emanda eta aurpegira begiratu gabe. Panorama ikusita, joka dezatela Gobernua aulki jolasean. Azkenean, askok pentsatuko duten moduan, egiten dutenerako… Ze ez al du itxura, desgobernua euneroko kontuan bihurtu dela, baina egungoa ez dela ezta, ofizialki gobernua zegoen garaitik hain desberdina? Guztiak orkestatu samarra dagoela dirudi. Apustuak egin ditzakegu zer gertatuko den, baina ez ote duen tankera, azkenean hau guztia, beste behin, ongi orkestaturiko antzezlan bat dela. Amaiera idatzia duena. Eta dena aldatuko dela saldu nahi digutela, beste behin, ezer ez aldatzeko.

Oraindik, aulki joko honetan, lehiakide batak besteari "tranpa" egitea egozten ari zaio, "joko zikina" egiten ari dela. Zuk niri hau, nik zuri bestea… Norbere interesak, herritarrenen gainetik. Ezohiko ezer ez.

Gerturago etorrita, jolasik gabe, aurrez aurre begira dauden aulkietan esertzeko gonbita luzatu berri die Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak (OEIT), Zubietan hondakinak erraustu nahi dituen Foru Aldundiari. Erraustegiaren eta gaixotasun eta hilkortasun-tasaren areagotzearen artean, lotura argia dagoela frogatzen duten datuak ditu mediku taldeak. Herriz herri dabil datuok aurkezten. Eta gipuzkoarren osasuna arriskuan jar dezakeen proiektu honen aurrean, OEIT-k esandakoak esan eta Aldundiak isilik segitzen du gaurkoz. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, Onkologikoa Aldundiko egoitzarekin lotuko duen giza-katea iragarri du. "Zergatik hasi Onkologikoan? Ez dugulako han bukatu nahi. Zergatik bukatu Foru Aldundian? Bertan has daitekeelako behar baino pertsona gehiago Onkologikoan bukatzera eraman ditzakeen bidea". Herritar askoren artean kezka areagotzen doa. Hitz hauen aurrean ere, Diputazioa gaurkoz isilik. Aulkian eseri eta aintzakotzat hartuko ote du gutxienik, medikuok diotena? Udaberri beroa datorkigu.

**Aritz Gorriti** | Idoia Torregarai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Imanol Ubeda

# Autobus zerbitzua Bilboko manifestaziora joateko

Nazioarteko preso politikoen egunerako, igande honetarako, apirilaren 17rako manifestazio nazionala deitu dute Bilbon, "amnistiaren norabidean, preso eta iheslariak etxera" aldarripean. Eguerdiko 12:00etan abiatuko da Kasillatik. Hara joateko autobus zerbitzua antolatu da Usurbilen. Izena ohiko tokietan eman ahalko da. Mobilizazioa martxoaren 13an, Oiardo Kiroldegian egindako ekitaldian aurkeztu zuten. Hitzorduak, ehunka euskal preso eta iheslari ohi batu zituen.




**Igande honetako manifestazioa 12:00etan abiatuko da Bilboko La Casillatik.**

Manifestazio honen harira, jada 1.500 lagunen atxikimendua jaso duen adierazpena irakurri zuten. Zuen babesa eman diezaiokezue manifestuari, abiandabidea.eus atarian sartuta. Adierazpenarekin bat egin duten lagunen artean dira espetxea edo erbestea ezagutu duten herritarrak ere; Joxe Domingo Aizpurua Aizpurua, Marisa Alejandro Gordaliza, Olatz Altuna Zumeta, Patxi Xabier Añorga Azpiazu, Julian Bengoetxea Ugarte, Xeles Camino Huegun, Mª Dolores Elkano Irurtia, Jokin Errasti Elorza, Oihana Lizaso Matxain, J.Koldo Lizaso Urreta, Karlos Martin Sanchez, Kornelio Roteta Irazusta, Patxi Segurola Mayoz, Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ramon Uribe Navarro, Iñaki Errekondo Salsamendi edota Xabier Pikabea Aizpurua.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: apirilak 22. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 18.

# Herritarrek biziberrituko dute errioa

Duela hilabete pasatxotik martxan da Usurbilgo ur zikin gehienak bildu eta Loiolako araztegira garraitzen dituen kolektorea. Albiste ezinhobea errioarentzat, orain gutxira arte ur zikin guztiek errioan amaitzen baitzuten. Kolektore berria, bereziki Oriak eskertuko du zalantzarik gabe. Eta are gehiago, orain Usurbilgo Udalak esku artean duen egitasmo berriak; "Errioa bizi! Oria ibaiaren paisaiaren ekintza plana" izenekoak.



**Ezkerretik hasita, Euskal Herriko Unibertsitateko kide Peio Lozano eta Mitxel Perez, Xabier Arregi alkatearekin batera.**

Oriari "merezi izan eta ez duen presentzia" eman nahi diote errioari. Oria biziberritu. Eta horretarako plan bat abiatu du Udalak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.

Usurbil aitzindaria izan dugu hainbat gaietan. Baita kasu honetan ere. Eskualdeko paisaiari loturiko ekintza planak badira, baina udalerri mailakoak abiatzen lehena dugu herri hau. Egitasmoak ez du soilik, lurraldearen antolaketa kontuan hartuko. Hemen dator berrikuntza; baita errioaren bueltan bizi diren herritar eta eragileak ere. Eta herritar eta eragileon iritzi, ikuspuntu edota bizipenak. Horretarako, hiru faseetan banatuko den parte hartze prozesu bat abiatuko dute proiektu honen sustatzaileek. Errioaren biziberritzeaz, "herritarrek zer dioten" jakin nahi dute.

Lehen fasean, errioarekin lotura estua dutenengana jo nahi dute. Belaunaldi ezberdinetako herritar edota eragile ekologistengana. "Bertakoek baino hobeto inork ez baitute ezagutzen" Oria. Elkarrizketa erronda hau, udal teknikari eta ordezkariekin borobilduko dute. Gero, herritarren txanda izango da. Inkesta labur batean parte hartzeko aukera izango du usurbildar orok. Eta datozen asteotan bildutako ekarpen guztiokin, azken txosten edo diagnosia osatuko dute. Prozesu honen amaieran, etorkizunerako Oria biziberritzeko aukera edo proposamen ezberdinak aterako dira. Horretarako ordea, proiektu honen sustatzaileek herritar eta eragileen parte hartzea eskertuko lukete, egitasmoa aberastuko baitu.

*ERRIOA BIZI! EKINTZA PLANA*

***"Prozesu honen amaieran, Oria biziberritzeko proposamen ezberdinak aterako dira"***

Adi beraz, datozen asteotan zuetako batek baino gehiagok, egitasmo honen berri eman eta zuen ekarpenak egitera gonbidatzeko Mitxel Perezen telefono deia jasoko duzue-eta.

## Ekintza plana

■ Apirilean zehar: elkarrizketa erronda errioarekin lotura estua duten eragile eta herritarrekin.

■ Maiatzean: inkesta herritarren artean. Eskuragarri egongo da usurbil.eus atarian, baita Usurbilgo erreferentzia guneetan ere. Aurrerago zehaztasun gehiagoren berri emango dute.

■ Uda parterako: herritar eta eragileen ekarpenekin diagnosia osatu asmo dute.

## 317 langabetu martxoan

Azken urteotan, garai honetan izandako joera errepikatu da oraingoan ere. Martxoan gorantz egin du langabetu kopuruak Usurbilen. Otsailean 302 langabetu zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak udalerri honetan. 15 gehiago, guztira 317 martxoan. Duela urtebeteko datuen azpitik segitzen du langabezia-tasak; iaz 343 langabetu zenbatu baitzituzten.

**Gipuzkoan, behera egin du langabeziak martxoan**

Bailaran eta Gipuzkoa mailan, langabeziak azken hilabetean izan duen bilakaera bestelakoa izan da. Bi eremuotan beherantz egin baitu langabetu kopuruak. Buruntzaldean, otsailean baino 18 langabetu gutxiago zenbatu dituzte, 4.259 guztira, eta Gipuzkoan 200 langabetu gutxiago, guztira 41.766.

**Kontratazioak ere, behera**

Kontratazioak ere zertxobait behera egin du Usurbilen. Otsailean 341 kontratu erregistratu ziren udalerri honetan; 334 martxoan. Ohi den moduan, ia denak, 317, aldi baterako, eta 220 zerbitzuen sektorean. Emakumezkoak baino gizonezko gehiago kontratatzen segitzen dute. Martxoan 334 kontratutik 198 gizonezkoenak ziren, 136 emakumezkoenak. Aldiz, gizonezkoak baino (144) emakumezko langabetu gehiago dago (173).

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# 25 urte kartzelan

## XABIER ARANBURU "XOMORRO" USURBILGO PRESO BETERANOENA DA

53 urte ditu. 1991ko abuztuaren 17an atxilotu zuten, artean 28 urte zituela. Geroztik, lau kartzela ezagutu ditu: Carabanchel, Alcala, Valdemoro eta Herrera de la Mancha. Azken horretan eman ditu urte gehienak, Usurbildik 662 kilometrora. Ofizialki 2017ko martxoan dauka irteera ezarria. Bere etxekoek eta lagunek ez dute ahazteko. Datorren asterako solasaldi bat antolatu dute Potxoenean. Apirilaren 20a asteazkena, 19:30etik aurrera Potxoenean.



**Datorren astean *Xomorro*-ren inguruko solasaldia antolatu dute. Apirilak 20 asteazkena, 19:30ean Potxoenean.**

Lege arrunta aplikatu balioте baldintzapeko askatasunean izateko eskubidea zuen duela 10 urte. "Gerora ere atzeratu diote bere askatasuna, zehazki, 2015eko martxorako irteera data baitzuen baina legedian egindako moldaketek beste bi urtez luzatu zioten espetxealdia", Usurbilen Nahi Ditugu taldetik aditzera eman digutenez.

### 2017ko martxoaren zain

Duela bi urte Euskal Preso Politikoen Kolektiboak hartutako erabakien ildotik, epaitegietan beren herritik gertuen dagoen espetxera eramana izateko eskaera egin zuen 2014ko ekainean "baina helegite guztiak atzera bota ditu Audientzia Nazionalak". Ofizialki, orain, 2017ko martxoan dauka irteera.

> USURBILEN NAHI DITUGU
>
> ***"Azpimarratzekoa da urte hauetan guztietan, senideez gain lagunek eta herrikide askok bisiten edota gutunen bidez lotura nola mantendu izan duten berarekin. Era berean, herritar ugarik adierazi dioten elkartasuna ere goraipatzekoa da"***

### Traba ugari

"Atxiloaldian tortura eta tratu txarrak jasan zituen baina inoiz ez ziren ikertuak izan". Espetxean ere ez du garai erraza ezagutu. Usurbilen Nahi Ditugu taldeak igorri digun oharrak dioenez, "bi bider jipoitua izan zen (1992 eta 1993) kartzeletako lekualdaketetan. Salaketa haiek ere artxibatu eta ez zituzten ondorio judizialik izan".

Gose greba eta hamaika protestaldi egin behar izan ditu urte hauetan eskubide minimoak aldarrikatuz. "Ondorioz *parte* ugari bildu eta bere kondena luzatu egin diote", Usurbilen Nahi Ditugu-koek azaldu digutenez.

Eragozpenak ere eguneroko martxan nozitu ditu. "Ikasketak edo eskulanak egiteko etengabe izan ditu trabak. Halere, aukera izan duenean, bere trebezia erakutsi izan du batez ere egurra zizelkatzen. Bere lanak ikusgai izan dira hainbatetan".

Aspaldiko bere bertsozaletasuna bistan geratu da Aginagako San Praxkutarako, Santixabeletako bertso-paper lehiaketerako edo beste hamaika ekitaldietarako igorri dituen bertsoen bitartez. "Hain zuzen, bere bertso eta poemekin liburuxka bat argitaratu zen 2007an eta Ateramiñeko sailan ere bere lanak argitaratu izan dira".

## Asteazkenean Potxoenean, Xomorroren inguruko solasaldia

Urteurrenaren harira, hainbat ekimen prestatuko dituzte datozen egunetarako. Lehena, apirilaren 20an asteazkena egingo da, arratsaldeko 19:30ean Potxoenean. "Batzar-topaketa bat izango da", Usurbilen nahi Ditugu taldetik aditzera eman dutenez. "Herritar askok ez ditu *Xomorrok* 25 urteotan izan dituen gorabeherak ezagutuko edo gogoratuko".

Hori guztia azaltzeko, apirilaren 20ko topaketan bideo bat eskaini eta solasaldi bat abiatuko dute ondoren. Bertan izango dira senide, lagun eta baita ere Xomorrorekin urte askotan Herrera de la Manchan egondako bi preso ohik. "Denen parte hartzearekin, alde politiko edota errepresibotik ez ezik, alde humanotik ere bere egoerara hurbiltzea ahalbidetuko digu. Beraz, deia zabaltzen diegu herritar guztiei bertaratu daitezen".

■ Apirilak 20 asteazkena.
■ 19:30ean Potxoenean.

### Apirilaren 22an, harpidetza afaria

"Usurbilen Nahi Ditugu" elkarteak eta Xomorroren lagunek beste ekitaldi bat ere antolatu dute. "Herriko presoei euskal prentsa helarazteko urteroko harpidetza afaria egingo da Aitzaga elkartean, apirilak 22 ostirala, 21.00etan hasita eta barrikotearen menuarekin". Txartelak salgai dira Aitzaga tabernan, 20 eurotan (14 euro ikasle eta langabeek).

■ Apirilak 22 ostirala.
■ 21:00etan Aitzagan.



Lontxo Zubiria

# Xübükota haurtzaindegia berria Maulen

Zuetako batzuk harriduraz hartuko duzue albistea, baina bai egia da, lehen aldiz haurtzaindegi euskaldun bat edukiko dute Maulen. Zerbitzu osoa euskaraz izaki ez da erraza izaten euskararik apenas entzuten ez den Maulen proiektu hau martxan jartzea. Askotan bisitari moduan joaten zarenean lehenengo hitza erdaraz izan ohi da. Eszepzio batzuk badaudela ere aitortu beharra dugu.



Sei haur dituzte oraintxe. Hurrengo ikasturterako zortzi haur espero dituzte.

Egoera beltza jarri badut ere, bada txuririk Maulen, hortxe duzue haurtzaindegi berri honen adibidea. Mauleko errekaren alboan dago arrosa koloreko Xübüta eraikina. Bertaratu eta atea jotzen baduzue, bertan topatuko dituzue Luixi Agergarai (Usurbilen kantuan ibiltzeagatik ezaguna da) eta bere ondoan Marion Cazenave mauletarra. Beraien zaintzapean, hiru haur 18 hilabete azpikoak eta beste hiru bi urte ingurukoak. Beraien helburua hurrengo kurtsorako 8 haur beraien esku egotea da, legeak hortxe jartzen baitie muga. Orain aipa dezagun nola iritsi diren gazte hauek beraien proiektua burutzera.

*HAURTZAINDEGIAN*

***"Bertaratu eta atea jotzen baduzue, bertan topatuko dituzue Luixi Agergarai (Usurbilen kantuan ibiltzeagatik ezaguna da) eta bere ondoan Marion Cazenave mauletarra"***

2014an abiatu ziren eta bidean laguntzaile andana topatu dute, tartean Udalbiltzak 4000 euro eman dizkie eta Euskal Erakunde Publikoak 2000 euro materialak erosteko.

Crowdfunding bidez ere 2000 euro eskuratu dituzte eta herritarren laguntza ere izan dute. Gaur egunean Herri Elkargoarekin ere harremanetan dira eta itxaropena badute bertatik ere laguntza jasotzeko. Beraz animo Luixi eta Marion, jarraitu Maule euskalduntzen.

# Diru bilketa, Ainharben eta Arüen bi etxalde erosteko

Lurzaindia elkarteak diru bilketa kanpaina hasi du "hiru baserritar gazterentzat bi etxalde erosteko, biak ere Zuberoan", Laborari astekariak zabaldu duenez. Uda baino lehen 400.000 euro bildu behar dituzte. Nafartarrak taldeak sustatuko du kanpaina hau Usurbilen.

"Amila Abou-Antoun hasi dadin antolatzen bere behi saila Arüen, eta Johane Foirien eta Lutxo Herrerak egonkortu dezaten Ainharben beren artaldea". Horretarako behar dute dirua.



Lurzaindiaren 2016rako proiektuen aurkezpenean: aurrean ezkerretik hasita Amila Abou-Antoun, Johane Foirien eta Lutxo Herrera (Argazkia: Laborari).

Datozen asteetan, Nafartarrak taldeak hainbat ekimen burutuko ditu. Zuk ere lagundu nahi baduzu, jarri harremanetan Nafartarrak taldekoekin edo bidali email bat erredakzioa@noaua.eus helbidera.

Nekazaritzako lurrak "espekulazioen atzaparretatik zaindu eta laborantzan hasi nahi duten gazteentzat erosten" saiatzen da Lurzaindia.

**Gutxienez 20 euroko ekarpena**

Euro bateko akzio bidez biltzen du dirua Lurzaindiak, gutxienez hogei euro inbertitu behar direlarik. Beren webgunean formula ezberdinak planteatzen dituzte aukeran. Dirua gutxienez bost urtez bertan uztea eskatzen da, erakundeak finantza aldetik lasaitasunez funtzionatu ahal izateko eta baserritar gazteak instalatu daitezen inbertsio berriei ekin ahal izateko.

# Teknologia berriei buruzko hitzaldia gurasoentzat

Zer jakin behar dugu gurasook sare sozialei buruz? (Mugikorrak, tabletak...). Galdera horri tiraka hitzaldia antolatu du Zubieta Lantzenek apirilaren 20an, 18:00-19:30 artean Zubietako Kaxkape egoitzan.

Baikara, Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioko kide Esther Martinezek bideratuko duen saioan, teknologia berrien funtzionamenduaren ezagutzan sakonduko dute, “hauen bitartez harreman osasuntsuak sustatzeko: gurasoen bitartekotza sare sozialen erabileran, pribatutasunaren kudeaketa eta identitate digitala, segurtasuna sarean, WhatsAppa, eskolako ziber-jazarpena”. Saioak gehiagorako emango balu, hizlaria “beste egun batean etortzeko prest egongo litzateke. Animatu eta parte hartu!”.



**Teknologia berrien funtzionamenduaren ezagutzan sakonduko dute, “hauen bitartez harreman osasuntsuak sustatzeko”.**

## Haur Eskolako matrikulazioa

Datorren astelehenetik aurrera, 2016-17 ikasturterako matrikulazio epea zabalduko dute Haur Eskolan. Matrikulazioa goizez bideratu beharko da, 09:30-12:30 artean. Horretarako ordea, aurrez hitzordua eskatu 943 374 061 telefono zenbakian. Matrikulazio epearen baitan, apirilaren 26rako ate irekien eguna antolatu dute; 17:00etan euskaraz, 18:00etan erdarazko saioa. “2014, 2015 eta 2016 . urteetan jaio diren eta jaioko diren haurren familiok, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra aurreikusten baduzue, gurekin harremanetan jarri mesedez”, ohartarazi dute Haur Eskolatik.

# LOMCE probarik ez dute egingo Udarregi Ikastolan

LOMCE-ren aurkako guraso taldeak ezagutzera eman duenez, LOMCE probarik ez dute egingo aurten. “Pasa den urrian, LH 3ko eta LH 6ko gurasooi LOMCEko kanpo-azterketei planto egiteko eskatu genizuen. Ez da arrazoirik falta horretarako, proba horiek antipedagogikoak eta hezkuntza eragileen adostasunik gabe ezarriak baitira, gure hezkuntza-sistemaren hainbat lorpen arriskuan jartzen baitituzte.

Maila horietako familiok, banatutako atxikimendu-orrien bitartez, proben kontrako jarrera garbia erakutsi duzue. LH 3n %60tik gora gurasok orria sinatu eta babesa erakutsi duzue; LH 6n, berriz, %70etik gora.

Dagoeneko Eusko Jaurlaritzak LH 6ko proba aurten ez egitea erabaki du. LH 3koari dagokionez, egitearen erabakia ikastetxeen esku utzi du. Haiek proposaturiko azterketa-ereduak edo ikastetxeek beraiek ezarriko dituztenak erabili ahalko dira.

Argudioak argudio eta gurasoen erantzuna kontuan harturik, Udarregi Ikastolak LH 3ko kanpo-azterketa ez egitea erabaki du”.

## Ingeles udalekuak Udarregi Ikastolan

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra antolatu dituzte, 2004-2010 urte artean jaiotako gaztetxoentzako Udarregi Ikastolan. Jatorrizko ingeles hiztunak diren hezitzaileek gidatuko dituzte. Izen emateko gerturatu ikastolako idazkaritzara, apirilaren 23a baino lehen. Izena emandako ikasle kopuruaren arabera zehaztuko da udalekuotako prezioa. 300 eurokoa izango dela aurreikusten dute. Doakoa, hezitzailea etxean hartzen duen familiarentzat.









# Maiatzaren 29an, osasunaren alde eta erraustegiaren aurkako giza-katea

Maiatzaren 29an, "berriz ere gure ahotsa ozen entzunarazteko aukera izango dugu". Hala adierazi zuen Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, larunbat eguerdian Donostian egindako agerraldian.

Donostiako Onkologikoan hasi eta Diputazio pareraino luzatuko den giza-katea iragarri dute maiatzaren 29rako.

Ekimen serioa bai baina koloretsua izango dela aurreikusten dute, "osasuna, azken batean, alaitasuna ere badelako. Horregatik lanean ari gara maiatzaren 29an musika, emozioak eta sorpresak ere falta ez daitezen", adierazi zuten. Herritarrei ekimenean parte hartzeko deia luzatzen diete. Hain zuzen, 5 kilometro luze izango dituen giza-katea osatzeko 5.000 lagun beharko dira eta gutxienez.




**Aurreko larunbatean aurkeztu zuten ekimena Donostiako Gipuzkoa plazan.**

### "Noiztik dira modernoak erraustegiak?"

Erraustegia osasunerako kaltegarria dela irudikatuko dute giza-katearen bidez. "Erraustegia pertsonen osasunerako zein ingurumenerako arriskutsua da. Gainera, garestia da; alde horretatik, belaunaldi hau ez ezik gure seme-alabena ere hipotekatuko du. Eta hori gutxi balitz, birziklatze-bidean zein ekonomia zirkularreko bidean aurrera egitea ere oztopatzen du", zioten Donostiako agerraldian. Ezagun egin duten esaldia ekarri zuten gogora; "Burua duenak ez du erraustegirik nahi bere herrian, eta bihotza duenak ez du beste inoren herrian nahi".

Zubietako erraustegiko eraikitze lanak urte amaieran abiatzekoak ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Instalazio moderno eta punta puntakoak izango omen dira Diputazioaren esanetan, kontrol sistema zorrotzenekin eraikiak. "Baina noiztik dira modernoak erraustegiak? Garaian garaiko modernoenak izanda ere, oso kutsakorrak ziren orduan eta oso kutsakorrak izaten jarraitzen dute orain. Carlos III Unibertsitateko ikerketa-txostena, minbizia eta errausketa lotzen dituena, 2014koa da eta erraustegi modernoak ere kontuan hartzen ditu. Anbereseko erraustegiak ere eztanda egin zuen, ez aspaldi-aspaldi, joan den otsailean baizik".

Bizkaiko erraustegia duela hamar bat urte eraiki zen. "Eta, hala ere, iaz 235.000 tona $CO_2$ isuri zituen atmosferara, berotegi-efektuko beste hainbat gas eta elementu kutsagarri bota–tzeaz gain. Enpresak berak Estatuko Erregistroari emandako datuak dira", Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak jakinarazi duenez.

**ERRAUSTEGIAREN AURKAKO MUGIMENDUA**

***"Zergatik hasi Onkologikoan? Ez dugulako han bukatu nahi. Zergatik bukatu Foru Aldundian? Bertan has daitekeelako behar baino persona gehiago Onkologikoan bukatzera eraman ditzakeen bidea"***

# "Logikoa da herritarrok pentsatzea ziria sartu nahi digutela"

Erraustegiari bestelako izenekin deitzeko Aldundiak erakutsi duen jarrera agerian utzi nahi izan zuten. "Erraustegi hitza erabilita, zertaz ari garen nahiko argi ikusten da, beharbada argiegi. Gehiegizko argitasun horrek nonbait kezkatuta, Aldundiak energia balioztatzeko planta esamoldea hobetsi nahi izan du. Hala, energia balioztatzeko planta eufemismoa motz geratu omen zaie orain, eta, trukean, Gipuzkoako Ingurumen Konplexua esaten hasi dira, konplexurik gabe. Norbaitek gauzak bere izenez ez deitzeko hainbeste esfortzu egiten duenean, logikoa da herritarrok pentsatzea ziria sartu nahi digutela", dio Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak.

## Erraustegiaren aurkako agenda

**Apirilak 15, ostirala, Udarregi Ikastolako jangelan:**

■ 19:00 Jakoba Errekondoren hitzaldia: "Bizi bara–tzea".

■ 20:30 Afari beganoa, borondatearen truk. Izen emateko: zaborfesta@gmail.com

■ Ondoren, "Hil ondoren erraustuko ez dituzten kantautoreen kantaldia".

Antolatzailea: herritar talde bat.

**Apirilak 22, ostirala**

■ 18:30 Hitzaldia Potxoenean: "Zer gertatzen da Biz–kaiko Zabalgarbi erraustegian?".

■ Hizlaria: Gorka Bueno Mendieta, EHU-ko irakaslea eta ingeniaritzan doktorea.

Antolatzailea: Erraustegia Erabakia.

**Maiatzak 21, larunbata**

■ Maiatzaren 20tik 22ra, proiektu suntsitzaileen (tartean erraustegiaren) aurkako Txirrinka bizikleta martxa gure artetik igaroko da, "Lurra zaindu, eredu soziala eraldatu! AHT eta proiektu txikitzaileak borrokatu!" aldarripean.

■ Informazio gehiago: http://ahttxirrinka2016.blogspot.com.es Antolatzailea: AHT Gelditu! Elkarlana eta hainbat eragile sozial eta sindikal.

**Maiatzak 29, igandea**

■ 11:30 Osasunaren aldeko eta erraustegiaren aurkako giza-katea Donostian, Onkologikoan hasi eta Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza pareraino.

■ Luzeera: 5 kilometro inguru. Gutxieneko beharrezko parte hartzea: 5.000 lagun.

■ Zehaztasunak: "musika, emozioa eta sorpresak" iragarri dituzte.

Antolatzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.

## Gorka Bueno, EHUko irakaslea eta Ekologistak Martxan-eko kidea:

# “Errausketak ez dauka zentzurik. Ez hemen, ez inon”

Erraustegia Erabakia taldeak hitzaldi berri bat iragarri du. Gorka Bueno EHUko irakaslea Zabalgarbiko errauste-plantari buruz arituko da Potxoenean. Datorren apirilaren 22an ostirala, arratsaldeko 18:30ean. “Zabalgarbi biluzik; Bizkaiko gezurrak desmuntatzen” lemapean abiatuko du hitzaldia.



Erdikoa da Gorka Bueno. Datorren astean, apirilak 22 ostirala, hitzaldia eskainiko du Potxoenean.

**NOAUA! Bizkaiko Hiri Hondakinen kudeaketari buruz Aldundiak aditzera emandako datuetan gezur eta manipulazio larriak daudela salatu du Ekologistak Martxanek. Zeintzuk dira antzeman dituzuen irregulartasun nagusienak?**

**Gorka Bueno.** Aldundiak dio Birziklatze tasa Bizkaian %67,7 izan zela 2014an, baina gezurra da. Kalkulu horretara heltzeko, Aldundiak birziklatutzat hartzen ditu Zabalgarbin sortutako zepak alde batetik, eta bestetik Zabalgarbiren tximiniatik isuritakoa prebenitutako hondakintzat hartzen du. Hori oso larria da. Europak agintzen duen metodologia erabiliz, egiazta daiteke Bizkaian hiri hondakinen %40 baino gutxiago birziklatzen dugula. Izan ere, birziklatzea Bizkaian, Gipuzkoan baino baxuagoa izan zen 2014an. Gipuzkoan %44ra heldu omen zarete. Bizkaian baino gehiago, batez ere atez ateko sistemari esker. Gipuzkoan ere egoera orokorra ez da batere ona, baina Bizkaian ez gaude hobeto. Kontu hauek guztiak datorren astean azalduko ditut Usurbilen.

**N. Hiri hondakinak kudeatzeko eta tratatzeko sistemaren kontu-ikuskaritza egin dadila eskatu duzue. Zertan da gaia?**

**G. B.** Birziklatze tasaz gain, hainbat kontutan irregulartasunak aurkitu ditugu Zabalgarbiren inguruan.

> GORKA BUENO, EHU
>
> ***“Foru Aldundiak dio Zabalgarbin erraustutako hondakin guztiak energetikoki balioztatzen direla, baina guk erakutsi dugu hori gezurra dela”***

10 urtean, Zabalgarbik ia 500 mila tona zepa sortu ditu. Errausketan sortutako zepak hondakin arriskutsu izan daitezke, eta izaera arriskutsua egiaztatzeko analisiak egin behar dira. Analisi horiek, ezaugarritzeak, eskatu ditugu eta ez dugu ezer jaso. Oso larria da. Administrazioek onartzen dute Zabalgarbiko zepak ez direla arriskutsuak, baina egiaztatu gabe. Une honetan zepa horiek, hondakin arriskutsu izan daitezkeenak, Zallako eta Igorreko zabortegietan omen daude botata, eta asko isurketa-ontzitik kanpo, zabortegi barruko bideetan.

Gainera, Aldundiak dio Zabalgarbin erraustutako hondakin guztiak energetikoki balioztatzen direla, baina guk erakutsi dugu hori gezurra dela. 2006an, adibidez, ezinezkoa izan zen balioztatze energetikorik egitea hondakinekin, Zabalgarbiren lurrin-turbina matxuratuta zegoelako. Bien bitartean, Zabalgarbik laguntza ekonomikoak jasotzen zituen, hondakinen energia balioztatzeagatik.

**Administrazioaren aldetik erantzunik jaso al duzue?**

**G. B.** Une honetan Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunaren zain gaude.

## “Zabalgarbi hondakin sortzaile handia da”

**NOAUA! Hamar urte bete ditu Zabalgarbik. Ekologistak Martxanen ikuspegitik, zer nolako balantzea egin daiteke?**

**Gorka Bueno.** Egungo tratamendu-sistemarekin, ezinezkoa da Bizkaian birziklatze tasa %50era heltzea (Europak 2020rako ezartzen duen helburua). Zabalgarbi hondakinen sortzaile oso handia da: zepak, $CO_2$-a, eta abar. Ekonomikoki ere ez da batere negozio ona, Zabalgarbin gas naturaleko kontsumoa oso altua delako.

Une honetan kiebran ez badago, urtean ia 20 milioi euroko hobariak jasotzen dituelako da, hondakinetik elektrizitatea sortzeagatik. Hala ere, elektrizitatearen %70 gas naturaletik dator.

Balantzea, beraz, oso negatiboa da, hainbat arlotan. Gipuzkoan arreta jarri behar du Aldundiak, akats berberak ez errepikatzeko. Gaur badakigu errausketak ez daukala zentzurik. Ez hemen, ez inon. Alternatiba da balioztatze materiala, birziklatzea eta berrerabiltzea. Eta aldez aurretik hondakinak sortzearen prebentzioa, noski.

# Usurbilgo hondakinen kudeaketa eredugarria da Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzat

Duela astebete geure artean izan genuen Nafarroako Uniber–tsitate Publikoko ordezkari–tza zabal bat. Usurbilgo hondakinen kudeaketa eredua bertatik bertara ezagutzera etorri ziren. Potxoenean izan ziren lehenbizi, Usurbilgo Udaleko ingurumen teknikari Ibon Goikoetxeak udalerri honetako ereduaren inguruko azalpenak eskaini zizkien. Eta gero, kalera irten ziren; hondakinak kudeatzeko udalerri honek duen azpiegitura sarea ezagutzera.


Potxoenean azalpenak jaso zituzten eta ondoren kalera irten ziren, hondakinak kudeatzeko udalerri honetako azpiegitura sarea ezagutzera.

Jatorri ezberdinetako 50 bat laguneko taldea zen; baziren arabar, bizkaitar, gipuzkoar eta nafarrak, baina ikastaro honetako koordinatzaile eta irakasle Natxo Irigoienek azaldu digunez, "gehienak Euskal Herritik kanpokoak" ziren. Madril, Galizia, Asturias, Kantabria, Huesca, Zaragoza, Valladolid, Burgos edota Palentziako udal ordezkari eta teknikariak. Guztiak, asteartetik ostegunera, hiru egunez, hondakinak biltzeko ereduaren inguruko ikastaro teoriko-praktikoa egiten aritu ziren Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Ikasgelan azalpenak jaso eta gero handik kanpo, abian dauden esperien–tzia ezberdinak ezagu–tzen aritu ziren. Iruñerrian ibili ziren lehen egunean; bertan indarrean duten bost edukion–tzien sistema gertutik ikusten. Atez ateko bilketa ezagutzen izan ziren biharamunean Usurbil–en. Eta autokonpostatze nahiz konpostatze komunitarioen esperientziak ezagutzeko tartea hartu zuten ikastaroa amaitu aurretik.

**BISITAREN ARRAZOIA**

***"Usurbilgo bisita, erreferenteak zaretelako egin dugu. Atez atekoa Kataluniatik kanpo jartzen aitzindariak izan zineten"***

## "Aitzindariak zarete"

Usurbilen egindako geldialdiaren zergatiaz galdetu diogu ikastaro honetako irakasle eta koordinatzaileari. "Usurbilgo bisita, erreferenteak zaretelako egin dugu. Atez atekoa Kataluniatik kanpo jartzen aitzindariak izan zineten. Eta aitzindariak zarete orain, hondakinen sortzez besteko ordainketa delakoa martxan jarri duzuelako", adierazi digu Irigoienek.

Ikastaro hau antza, aldez aurretik Katalunian antolatu izan dute. Bi orduko saioak egin izan dituzte astero eta hilabete luzez. Baina, "kanpoko jendeak joateko zailtasun handiak zituen. Horregatik, ikastaro hau Kataluniatik kanpo eskaintzea erabaki zuten. Gurekin hartueman estua dutenez, horregatik antolatu dugu Nafarroan eta modu trinkoan", Irigoienen esanetan.

# Hondakinen gaia pil-pilean da Nafarroan

Hondakinen kudeaketa plan berria lantzen ari dira Nafarroan. Bertan pil-pilean dago hondakinen gaia. "Aukera piloa irekitzen ari dira. Dena aztertzen ari dira. Jendea halako esperientziak ezagutzeko irrikitan dago", adierazi dio NOAUA!ri Irigoienek.

Nafarroako hondakinen kudeaketari loturiko errealitatearen errepaso azkarra egin digu. Beste hainbat eremuetan gertatzen denaren antzera, hondakinen kudeaketari dagokionean ere, Nafarroako zonaldearen arabera sistema ezberdinak aurki ditzakegu. Atez ateko bilketa, bereziki Sakana inguruan. Bosgarren edukiontzien sistema, Iruñerrian esaterako. "Eta gero oso indartsu sartu dira Nafarroako leku askotan, bilketarik gabeko sistemak; autokonpostatzean oinarriturikoak modu indartsu batean", nabarmendu digo Irigoienek.

# Ingurumen diputatua, Usurbilgo Lanbide Eskolan


José Ignacio Asensio Ingurumen diputatuak Usurbilgo Lanbide Eskola bisitatu zuen aurreko astean. Pobrezia energetikoari aurre egiteko Foru Aldundiaren estrategiaren barruan, Eskolak Ingurumen Departamentuaren laguntza jaso du energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko eta aurrezpen zein eraginkortasun energetikoa lortzeko.


ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA
AZKEN ETXEBIZITZAK!
188.000 € tik
12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi
• Etxebizitza argitsuak.
• Terraza handiak.
• Lorategidun behe solairuak.
• Primerako kalitateak.
• Diseinuzko materialak.
USURBILEN
VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia
E.:contacto@viviendaslanin.com
943 46 88 60
www.viviendaslanin.com


URTINEA IREKIERA!
BERRIRO ZUEKIN!
URTINEA
Iritsi da
Udaberria
Zatoz eta jantzi kolorez
zure etxe, balkoi zein lorategia!
•San Esteban auzoa ☎ 943 36 22 55

# Jubenil nesken taldea, Euskadiko txapeldun



Eskubaloiko jubenil nesken taldea, etxekoekin batera, garaikurra aurrean dutela. Argazkia: Lurdes Hueta.

Taldeko kamisetek zioten moduan, helburu txikiak handi bihurtzen ari da Usurbil Kirol Elkarteko jubenil nesken taldea. Ikusi bestela asteburuan lortu dutena; Euskadiko txapeldunak ditugu usurbildarrak! Zorionak! Ermuan jokaturiko azken faseko hiru neurketetatik bi irabazi zituzten, azkena galdu, baina ostiral eta larunbatekoa irabazita, esandakoa, Euskadiko txapelduna dugu jubenil nesken eskubaloi taldea.

## Emaitzak

**Apirilak 8, ostirala**
Aiala ZKE 20-25 Usurbil K.E.
Errotabarri 26-22 GF Zuazo

**Apirilak 9, larunbata**
GF Zuazo 18-19 Aiala ZKE
Errotabarri 28-31 Usurbil K.E.

**Apirilak 10, igandea**
Usurbil K.E. 24-25 GF Zuazo
Aiala ZKE 28-30 Errotabarri

## Sailkapena

1-Usurbil K.E.: 4
2-Errotabarri: 4
3-Aiala ZKE: 2
4-GF Zuazo: 2

## Espainiako Txapelketa, Ciudad Realen

Euskadiko txapeldun izateaz gain, Espainiako Txapelketarako ere sailkatu da Usurbil K.E.-ko jubenil nesken taldea. Apirilaren 22tik 24ra jokatuko dute aipatu fasea, Pozuelo de Calatravan (Ciudad Real):

■ Jokatuko duten sektorea: E.
■ Jokalekua: Pozuelo de Calatrava (Ciudad Real).
■ Aurkariak: C. Pozuelo de Calatrava (Gaztela Mantxa), BM. Nazareno (Andaluzia), eta EMD Aceuchal (Extremadura).

## Eskubaloia Oiardon

**Apirilak 16, larunbata**

■ 09:15 Benjamin neska-mutilak: aerobik topaketa.
■ 10:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5A-Elizatxo
■ 10:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6B-Udarregi 6A
■ 11:30 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Pulpo K.E.
■ 12:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Pulpo K.E.
■ 16:00 Kadete neskak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E. "A"-Astigarraga Gys Sport Elgoibar.
Oharra: jubenil neskak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Bera Bera neurketa, atzeratua.

## Selekzioarekin

**Apirilak 17, igandea**

■ 10:30-12:30 Jubenil mutilen Gipuzkoako Selekzioaren entrenamendu saioa, Zumarragako Ispilla Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko jokalari Jokin Azpeitia deitu dute hitzordu honetara.
■ 18:00 Jubenil nesken aurre selekzioaren entrenamendu saioa, Urretxuko Ardiri Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko jokalari Ane Irazabal, Ane Retolaza, Eider Makazaga eta Estitxu Berasategi deitu dituzte.

## Senior mailako azken fasea Oiardon jokatuko da

Usurbil hautatu dute senior nesken Euskadiko Txapelketako azken fasea jokatzeko. Asteburuan izango da, apirilaren 15etik 17ra, Oiardo Kiroldegian. "Bi onenek Espainiako Zilarrezko Ohorezko Mailarako igoera fasea jokatuko dute", berri eman du Usurbil K.E.-k. Usurbilgo taldeak, beraz, etxean jokatuko du azken fasea.

**Senior nesken Euskadiko Txapelketako azken fasea**

**Apirilak 15, ostirala**
18:30 GF Zuazo-Basauri
20:15 Bera Bera-Usurbil K.E.

**Apirilak 16, larunbata**
17:45 Indupime Basauri-Bera Bera
19:30 GF Zuazo-Usurbil K.E.

**Apirilak 17, igandea**
10:00 Bera Bera-GF Zuazo
11:45 Usurbil K.E.-Basauri
Tokia: Oiardo Kiroldegia.













# Azken txapelketetan domina ugari lortu ditu Usurbil Judo Klubak


Otsailean, Bartzelona Hiria Beteranoen Kopa txapelketan hartu zuten parte. Argazkia: www.jcusurbil.com

Azken hilabetean eskuratu dituzten emaitzak, horren guztiaren adierazgarri:

**Gipuzkoako Kadeteen Txapelketa (Andoain, 16/03/13)**
Lehen postuan sailkatu ziren Mafer Carazas (-48kg), Alba Vicente (-52kg), Nagore Eizagirre (-63kg), Lorea Etxabe (-70kg), Julen Alzas (-60kg), Paul Pividori (-66kg), Josu Ruiz (-81kg) eta Mikel Formoso (-90kg). Bigarrenean, Paula Santamaria (-70kg), eta hirugarren Irati Borda (-57kg). Unai Gonzalezek (-55kg) eta Iker Lopezek (-55kg) ere parte hartu zuten.

**Infantil mailako sailkapen txapelketa (Andoain, 16/03/13)**
Lehen postua eskuratu zuten Delia Medicesek (-40kg), Jonathan Martinek (-42kg) eta Xiker Gurrutxagak (-55kg). Bigarren postua Mara Vaquerok (-48kg), Mayla Tejerak (-52kg) eta Diego Ramosek (-46kg). Hirugarren sailkatu ziren Maddi Granado (-44kg), Mario Cancio (-42kg) eta Ibai del Rincón (-46kg).

**Espainiako Junior Txapelketa (Madril, 16/03/05)**
Sailkatuak: Xabier Cazorla (-73kg), Mikel Sanz (-90kg), Paula Vicente (-48kg), Mafer Carazas (-48kg) eta Lorea Etxabe (-70kg).

**Alebinen sailkapenerako txapelketa (Hernani, 16/02/27)**
Lehen postuan Raul Basterra (-31kg) eta Xuban Gurrutxaga (-37kg) sailkatu ziren. Bigarren Oier Eleta (-34kg), Mikel Eizagirre (-44kg) eta Alex Herrero (-52kg). Hirugarren, Diego Fernandez (-31kg), Aitor Alonso (-34kg), Lucas Miguel (-34kg) eta Ekain Ramos (-40kg). Bosgarren postua eskuratu zuten, Asier Unsainek (-37kg), Markel Aburuzak (-57kg), Garazi Mutiloak (-34kg) eta Miriam Apellanizek (-42kg). Txapelketan parte hartu zuten baita, Unax Gabellanesek (-34kg), Anartz Blancok (-34kg), Igor Colinak (-40kg), Unai Parrondok (-48kg), eta Oier Ikatzetak (-57kg).

**A Superkopa, Bartzelona Hiria (Bartzelona, 16/02)**
Urrea Andoni Aizpurua (-60kg), Ion Martin (-73kg) eta zilarra Egoitz Morarentzat (-100kg). Bosgarren postuan sailkatu zen Aiora Arrillaga (-52kg). Alain Romanek (-73k) ere parte hartu zuen txapelketan.

**Durango Hiria Txapelketa (Durango, 16/02/27)**
Urrea Delia Medices (-40kg), brontzea Maddi Granado (-44kg), Jonathan Martin (-42kg) eta Ibai del Rinconentzat (-46kg). Zilarra Mara Vaquerok (-48kg). Txapelketan parte hartu zuten baita, Mayla Tejerak (-52kg), Mario Rodriguezek (-38kg), Diego Ramosek (-46kg), Xiker Gurrutxagak (-55kg) eta Alex Diezek (-55kg).

**Espainiako Junior Txapelketa (Zaragoza, 16/02/20)**
Urrezko domina Xabier Cazorlak (-73kg), Paula Vicentek (-48kg) eta Lorea Etxabek (-70kg). Zilarrezkoa Mikel Sanz (-90kg) eta Mafer Carazasentzat (-48kg). Brontzezkoa, Julen Alzasek (-60kg) eta Alba Vicentek (-52kg).

**Espainiako beteranoen txapelketa (Guadalajara, 16/04/02)**
Emaitzak: urrea Andoni Aizpuruak (-60kg), Ruben Martinezek (-81kg), Egoitz Morak (-100kg), Iker Lizarribarrek (-100kg). Zilarra, Eduardo Lacak (-66kg), Ion Martinek (-73kg) eta Xabier Sanchezek (-73kg).

Irudia eta informazio gehiago: www.jcusurbil.com/

## Nordic walking ikastaroa, larunbatean Kiroldegian

Oiardo Kiroldegiak antolatu du eta oinarrizko aholkuak emango dituzte, larunbatean 10:00-13:00 artean. "Ibiltzeko eta kirola egiteko modu ezberdin bat da. Bi makilen laguntzaz praktikatzen da, ALFA izeneko teknika erabiliz, erritmoa du eta gorputzeko hainbat atal lantzen dira: hankak, besoak, bizkarhezurra, enborra... Eta gainera, ingurunearekin bat egiten duzu!", berri eman dute antolatzaileek. Ikastarorako izena, Oiardo Kiroldegian eman beharko da. Prezioa: 15 euro bazkideek, 30 euro bazkide ez direnek. Makilak 5 eurotan alokatuko dira. Argibide gehiagorako: 943 372 498.

## Oiardo Kiroldegiko zerbitzuak, esleituak

Oiardo Kiroldegiko atezaintza, harrera eta administrazio lanen zerbitzua esleitu du Usurbilgo Udalak. Udalak martxoaren 31n hartutako erabakia, apirilaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten. BPXport Kirol Zerbitzuak, S.L.U. izan da esleipenduna. Bi urtetarako esleipena da honakoa, urtero beste bi urtez luzagarria izango dena. Abenduan egin zuen lizitazio deialdia Udalak.

**Abian diren esleipen prozesuak**
Oiardo Kiroldegiari loturiko esleipena gauzatu da jada. Bide berean, Usurbilgo Udalak esleitzear ditu zerbitzuok:
-Nerabeentzako udal zerbitzua kontratatzea.
-Santueneko Gure Elkartea jubilatuen tabernaren kudeaketa.
-Artzabalgo Gure Pakea Elkarteko jubilatuen tabernaren kudeaketa.
-Etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko kontratua.
Informazio gehiagorako: usurbil.eus

# Paleta Goma Txapelketan izena emateko garaia da

Maiatzean hasi eta Santixabeletan amaituko da. Ohi bezala, bi kategoriatan jokatuko da. Kontuan izan txapelketa hau 18 urtetik gorako usurbildarrentzat dela. Eta maiatzean hasiko bada ere, izena aldez aurretik eman beharra dagoela. Apirilaren 22a baino lehen, zehatzago esanda.



**Emakumeen mailako partidak astelehenetan jokatuko dira Usurbilen. Gizonezkoenak ostegun zein larunbatetan, eta lehen kanporaketak Aginagan.**

## Gizonezkoen mailan

✓ Paleta gomaz jokatuko da.
✓ Bakoitzak bere izena eman behar du eta aurrelari edo atzelari jokatzeko asmoa duen. Gero lehiaketa bikoteak aldatuz izango da.
✓ Partidak: ostegun arratsaldetan 20:00tatik aurrera eta larunbat arratsaldetan 16:00etatik aurrera izango dira.
✓ Lehiaketa sistema, parte hartzaile kopuruaren arabera zehaztuko da.
✓ Partida guztiak Aginagan jokatuko dira. Finalerdiak (baleude) eta finala Usurbilen.

## Emakumeen mailan

✓ Tenis edo gomazko pilotarekin jokatuko da.
✓ Partidak astelehenetan 20:00tatik aurrera izango dira.
✓ Lehiaketa sistema, bikote kopuruaren arabera zehaztuko da.
✓ Partida guztiak Usurbilen jokatuko dira.
✓ Izena emateko 626110923 zenbakira deitu edo emaila idatzi: huizip@gmail.com

## Baldintzak

■ Norentzat: 18 urtetik gorako usurbildarrentzat.
■ Noiz: maiatzean hasi eta Santixabeletan amaitzeko.
■ Izen-ematea: apirilak 22, ostirala, azken eguna.
■ Antolatzailea: Usurbilgo Pilota Elkartea.

# Ereñozutik Herri Urratsera oinez

Asteburu pasa antolatu dute, maiatzaren 8an Senperen ospatuko den Herri Urrats jaialdiaren aitzakian. Izen ematea zabaldu dute jada:



**Baranbio-Parketxea mendi irteeran 34 mendizale batu ziren. Argazkian, Odoriagako mendiaren gailurrean ageri dira (1.245 m). Aldapei eta haize indartsuari aurre egin behar izan zioten.**

■ Egunak: maiatzak 7-8 edo maiatzak 8. Bi eguneko edo egun bateko irteera aukeran.
■ Abiatzeko hitzordua:
-Bi egunetako irteerara doazenentzat: maiatzaren 7an 08:30ean Oiardo Kiroldegitik.
-Egun bateko ibilbidea egitera doazenentzat: maiatzaren 8an, 08:30ean Oiardo Kiroldegitik. Autobus zerbitzua Lizuniagaraino. “Nahi duenak, Senpereraino autobusez joan daiteke. Kasu honetan, ez dago derrigorrez federatua egon beharrik”.
■ Bi ibilbide aukeran:
-Bi egunekoa: Ereñozu-Lesaka maiatzaren 7an (6,5 ordu) eta Lesaka-Senpere maiatzaren 8an (5,5 ordu). Gaua Lesakako Matxinbeltzenea aterpetxean: dutxa, loa eta gosaria. Afaria aparte ordainduko da.
-Egun batekoa: Lizuniaga-Senpere maiatzaren 8an (3,5 ordu).
■ Bi eguneko ibilbidea egin nahi dutenek 27 euroko ordainketa egin beharko dute apirilaren 28a baino lehen. Egun bateko irteeran parte hartu nahi dutenek, 10 euroko ordainketa maiatzaren 4a baino lehen. Ordainketak kontu zenbakiotan egin behar dira:
Rural Kutxa: 30080259 1630 05430321
Kutxabank: 20955069 0710 68489805
■ Plaza mugatuak.
■ Informazio gehiago: andatzamendizale.info
■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.

## Futbito txapelketan izena emateko epea, azken txanpan

Ostiralera arteko epea dago izen emateko. “Emakume eta gizonezkoen txapelketa egongo da. 1999. urtean edo lehenago jaiotakoak parte hartu ahalko dute.

Talde bakoitzak izen emateko gutun bat entregatu beharko du Aitzagan edo Irratin, eta bertan taldearen izena, partaideen NAN fotokopia eta 50 euro sartu beharko ditu. Talde bakoitza gutxienez 7 jokalariz eta gehienez 12z osatua izan beharko du. Partidak ostiral gauetan jokatuko dira, 20:00tik aurrera herriko frontoian”.

## Futbola Haranen

**Apirilak 16, larunbata**
■ 11:00 Alebin neskak: Udarregi-Udarregi
■ 12:00 Infantil neskak: Usurbil FT-Orioko FT
■ 16:00 Jubenil mutilak: Usurbil FT-Trintxerpe CD A

## Pilota partidak

**Apirilak 15 ostirala**
**Usurbilen, 20:00etan**
Udaberri lauterdian txapelketa
■ Jubenil Lehen Maila
PAGAZPE(Jon Aranberri)
AZKOITIA (Izagirre)

■ Nagusiak
PAGAZPE (Jon Zendoia)
HERNANI (Apezetxea)

## Apirilaren 23an, Tximeleta taldeen topaketa Oiardon

Datorren astean, gimnasia erritmikoa ikusteko aukera aparta izango da. Kirol jarduera honetan aritzen diren Tximeleta taldeen Topaketa ospatuko da apirilaren 23an egun osoz, Oiardo Kiroldegian, 09:00-18:00 artean. “Donostia, Pasaia, Oiartzun, Usurbil, Astigarraga eta inguruko 20 ikastola eta ikastetxe desberdinetako 300 neska-mutil inguruk parte hartuko dute”, adierazi dute antolatzaileek. Sarrera doan izango da.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus
Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 60 metro, 140.000 euro. Tl: 636393237

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m2. Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanporaldera. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldea jantokia aparte duela. 605 707 642.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komuna bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

### Alokairuan

Hiru gelako pisu bat alokagai erdialdean. Igogailua, guztiz kanpokaldera. tel:630713583

Alokairuko pisu baten bila nabil, bi gelakoa 500-650 euro artean, edo hiru gelakoa 550-700 euro artean. 632129182 Claudio

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu bat alokairuan Puntapax-en. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Duplex modukoa, oso oso berezi jarrita. 627 496 740. Carlos.

Pisu bat alokairuan Artzabalen. Beheko solairuan, terrazarekin eta oso egoera onean. Tel. 655 708 276.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866 .

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarte batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Atxega jauregian plater garbitzalea behar dugu. Interesatuok idatzi email bat: atxega@atxegajauregia.com

Estetizista bat behar da ileapaindegi batean lan egiteko. 943361971

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Neska bat eskaintzen da etxea zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko orduka. Disponibilitatea 9:00etatik 15:00tara. 629 110 310.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldez, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketak egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai.



**Zorionak Luis eta Juanita!** Apirilaren 18an aitonak 88 urte eta 21ean berriz 60 urte ezkondu zinetela. Muxu handi bat etxekoen partez.



**Urte askotarako Harriet!** Pasa den apirilaren 7an 6 urte handi egin dituk! Muxu pila bat etxeko guztien partez eta segi beti bezain jator!



**Zorionak Irai!** Apirilaren 5ean bi urte bete zenituen! Muxu handi bat etxekoen partez!



**Zorionak Olaia!** Apirilaren 9an, 8 urte bete dituzu. Muxu asko asko aita eta amaren partez.



**Zorionak Carla eta Paula!** Apirilaren 10 eta 28an zuen urtebetetzeak izan eta izango dira. Ondo pasa zuen egunetan eta muxu asko aita eta amaren partez.



**Zorionak Ekhi!** Apirilaren 13an 8 urte egingo dituzu. Ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat ama, aita eta familia osoaren partez.

Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantxatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduak edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak.618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

**BESTELAKOAK**

Artzai txakur bat oparitukonuke. Baserri edo pabeloia zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mikro-txipa jarrita ditu. Telefono zenbakiak: 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Kalexarren, azpiko kaleko garajeetan, katu txuri, marroia eta urre kolorekoa desagertu zaigu. 2015eko irailean jaioa. Norbaitek aurkitzen badu deitu: 943 371 220

Oraindik garantian dagoen sukaldeko indukzio plaka bat salgai. Tel. 645 701 879.

Emakumezkoen bizikleta bat erosiko litzateke neska batentzako. Tel. 636 051 625. Leticia.

Egurrarekin sua egiteko ekonomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kiloa. 657 714 355

Ume txaketa bat galdu da (marroia) Askatasuna plaza-Atxegalde bitartean 943110954

8-10 urteko haur baten tamainakoa den sudadera gorri bat galdu dugu. Letra grabatu beltzak ditu. Deitu telefono zenbaki honetara: 676 82 33 11

Babarrun beltza eta babarrun motz zuria salgai. Usurbilgo erriberan eta botikarik gabe ekoiztutakoa. 65 777 01 31 (WhatsApp).

Memoria txartela galdu da argazki kamerarena, aurkitu baduzu eraman NOAUA!ra mesedez.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 363 201.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. Telefono zenbakia: 688 888 176. Pablo.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Eusko Tren | 943 470 976 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 | LurraldeBus | 943 000 117 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Anbulategia | 943 362 013 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Amenabar botika (lehen Oa) | 943 376 076 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Iturralde botika | 943 363 395 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | DYA | 943 464 622 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Emergentziak | 112 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| KZgunea | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | BBVA | 943 377 155 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 | Telefonica | 1004 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 | Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak

## Apirilak 14 - apirilak 24

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | **14** | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Ostirala** | **15** | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| **Larunbata** | **16** | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Igandea** | **17** | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Astelehena** | **18** | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Asteartea** | **19** | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Asteazkena** | **20** | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Osteguna** | **21** | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Ostirala** | **22** | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Larunbata** | **23** | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Igandea** | **24** | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
URRUTIA YURREBASO, MAITANE
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani
943 55 77 38 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.**

# Agenda apirila

## 15 ostirala

- **Garagardo artisaua egiteko ikastaroa** 15:30etik 19:30era Alkartasuna Kooperatiban.
- **Erraustegiaren aurkako ekimenak** Jakoba Errekondoren hitzaldia 19:00h, 20:30h afari herrikoia eta ondoren kantaldia Udarregiko jangelan.

## 16 larunbata

- **"Nordic Walking", oinarrizko ikastaroa** 10:00-13:00 Oiardo Kiroldegian.
- **Kontzertu Gaua gaztetxean** 22:30ean. Tutan Come On, Voltaia eta Santo Rostro. Sarrera 3 euro.

## 17 igandea

- **Txokoaldeko Erroizpe elkarteko batzarra** Lehen deialdia 10:00etan; bigarrena 10:30ean.

# Bi hitzordu Sutegin, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira

Apirilaren 23an ospatuko den Liburuaren Egunaren bueltan, bi hitzordu antolatu ditu Sutegi udal liburutegiak:

**Apirilak 20, asteazkena**

18:00 "Zirriborro" antzezlana Sutegiko auditorioan. "Klown kodean eta testurik gabe, Badut antzerki konpainiak Zirriborro antzezlana taularatuko du, udal liburutegiak antolatuta". Sarrera: doan.

**Apirilak 27, asteazkena**

19:00 Euskarazko irakurketa topaketa Sutegi udal liburutegian."Danele Sarriugarteren Erraiak (Zilarrezko Euskadi Saria 2015) liburua izango dugu ahotan, eta idazlea bera gure artean egongo da, istorioaren barne muinak komentatzeko eta



**Datorren asteazkenean, Zirriborro antzezlana Sutegiko auditorioan, 18:00etan hasita.**

sortze prozesuaz hitz egiteko. Liburuaren ale ezberdinak jada, Liburutegian daude eskuragarri; izan ere, liburua aldez aurretik irakurriz gero, etekin handiagoa aterako baitiogu topaketari".

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

## Garagardo artisaua egiteko ikastaroa

Ikastaroa Alkartasuna Kooperatiban egingo da, ostiral honetan, apirilak 15, 15:30etik 19:30era.

- Prezioa: 25 euro. Bazkideek doan.
- Izen-ematea eta informazio gehiago: 943 361 114 alkartasuna@usurbil.com

## Punk musika gaua Gaztetxean

Larunbat honetan, 22:30etan hasita, punk musika gaua Usurbilgo Gaztetxean. Tutan Come On ("Stoner punk metal duo", Gasteiz), Voltaia ("Stonerpunk", Zumaia) eta Santo Rostro ("Stoner boom", Al Andalus) taldeen kontzertuak. Emanaldirako sarrera 3 eurotan eskuratu ahalko duzue.

## Datozenak

### Musikariak ludotekan

Olatz Korta eta Xabier Zubeldiaren musika emanaldia izango da apirilaren 22an 18:00etan hasita, Bihurritxiki Ludotekan. 0-6 urte artekoei zuzendua egongo da hitzordua.

### Katiuska Antzerki Taldea Sutegin

Tolosako Katiuska Antzerki Taldea Sutegira dator astebete barru, apirilaren 22an. "Zartapa!" izeneko antzezlana eskainiko dute gaueko 22:00etan hasita, Sutegiko auditorioan. Sarrerak egunean bertan, 6 eurotan.

### Dantza Eguna, ate joka

**Apirilak 23, larunbata**

- 11:00 Dantza Taldeei harrera. Partehartzaileak: Ortzadar (Lekunberri), Goizaldi (Donostia), Orbeldi Dantza Taldea (Usurbil).
- 12:00 Kalejiraren hasiera. Herriko gune desberdinetan geldialdiak egingo dira dantza saioak eskaintzeko.
- 13:30 Ekitaldi Nagusia frontoian.
- 14:30 Dantzarien Bazkaria.
- 18:00 Erromeria frontoian, Ortzadar taldearekin.
- 22:30 "Kanpaiak Jotzean" ikuskizuna, Orbeldi Dantza Taldearen eskutik.

LUNA PULIDA CRISTANOLA
AÑORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
·komertzial instalazioak ·beira bikoitza
·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ELORZA
OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

OSASUN GIDA

USURBIL OPTIKA
Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak neurrira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan
2x1 PROGRESIBOETAN
Zubiaurrenea, 10 • 943 370 269 • 675 708 654

FISIOTERAPIA ZENTROA Ibaiondo
Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak
Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxa: 943 370 306

Kima MASAJE LEKUA
·Kirol eta terapeutiko masajeak
BERRIA!
Txirrindulariaren azterketa biomekaniko eta osteopatikoa
943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik podologia zentroa
943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil
✓ Azterketa biomekanikoak ✓ Plantilak
✓ Papilomak ✓ Erreflexoterapia
✓ Kolagenozko infiltrazioa ✓ Kiropodiak

Iturraldebotika
Tomas Iturralde botika 108/12 P.E.Z.
Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua
Dermofarmazia
Produktu homeopatikoak
Maisu formulak
Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95 www.iturraldebotika.com

OSASUN GIDA

LOGOPEDIA
Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA
• Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
• Ahotsaren tratamenduak: disfemiak, disfonia funtzionala sinple eta konplexua...
• Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...
Aurreko hitzordua: 635 701 374

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

# Edertu zaitez!
















